
SALBURUAKO HEZEGUNEA

Vitoria-Gasteizeko ipar ekialdean kokatuta dago eta “Gasteizeko Akuifero Kuaternario” izenekoarekin lotutako urmael multzo bat eratzen du, alegia; Arabako Lautadapean hedatzen den lurpeko ur pilaketa handia.

Hura aldi kuaternarioko aroan sortu zen. Orduan, Arabako Lautada drainatzen zuten ibaiek harkaitz substratuaren gainean legar, buztin eta lohi kopuru handiak uzten zituzten. Horiek guztiek akuifero bat sortu zuten, hau da, ur biltegi handiaren moduan jarduten duen esponjaren antzeko bat. Hezegunea bereziki deprimituta dagoen gune bat da. Bertan, akuiferoa sortu egiten da eta urek azalera ateratzeko joera dute, urmelak sortuz.



Ortoargazkia 1945-46. Amerikar Hegaldia, A bilduma. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco;geoEuskadi. Geografia Erakunde Nazionala. Urdinez, gaur egungo urmaelak: 1. Betoñoko Urmaela. 2. Arkauteko Urmaela. 3. Duranzarrako Urmaela. 4.Larreganako Urmaela.

Historikoki, hiru urmael nagusik sortzen zuten Salburuako hezegunea: Betoño, Larregana eta Arkaute. Horiek guztiek ingurumen balio handia zuten, baina 1857. urtean lehortzen hasi ziren, bertan laborantza garatu ahal izateko. Prozesu hura 1950ean inguru amaitu zen Betoñoko urmaela lehortu zenean.

1994. urtean, ingurumen naturalaren balioarekiko mentalitatea aldatzearen eraginez, hezegunea lehenera ekartzeko lanei ekin zieten, garai horretan nabarmen degradatutako oso eremu txikia geratzen baitzen.

Lan horiek honakoan zeutzan: hiru urmael nagusien drainatzeak kentzea eta Duranzarrako urmaela lehenera ekartzea, 200 Ha inguruko gune bat hezegunerako erreserbatuz. Horietatik, 60 Ha ur xaflari dagozkio. Bertako begetazioa ere lehenera ekartzeko prozesuan dago.



“Ataria”, Salburuako Natura Interpretazio Zentroa. Arkitektura obra interesgarria (2009), José María García del Monte, Ana María Montiel eta Fernando García Colorado arkitektoen lana.

Bere ingurumen balioaz gain, hezeguneari esker, Vitoria-Gasteizeko periferian uholdeak izatea saihesten da.

Ingurumena lehenera ekartzeko jarduerekiko paraleloki, bide eta informazio panelen sare bat gaitu zen; hezegunea bisitatzeko bideak, egonaldi zonalde egokiak eta abar diseinatu ziren, eta 2009. urtean diseinu bitxiko interpretazio zentro bat ireki zen, informazioa biltzeko eta harekin eta, oro har, ingurumenarekin lotutako jarduerak dinamizatzeko.

Gaur egun, RMASAR hitzarmenak nazioarteko garrantziko hezegune gisa babestu du. Red Natura 2000 sarean ere Kontserbazio Bereziko Gune (ZEC) eta Hegaztietarako Babes Bereziko Gune gisa (ZEPA) babestuta dago, eta Vitoria-Gasteiz inguratzen duten eraztun berdean edo gune naturaletan parte hartzen du.



Salburuako Hezegunea. Vitoria-Gasteizetik gertu dagoenez potentzial didaktiko handia dauka. Iturria: ‘CC BY-3.0-ES 2012/EJ-GV/Irekia-Gobierno Vasco/Mikel Arrazola.



Ortoargazkia 2015.

UTM 30N ETRS89 X: 529732 m Y: 4745269 m Z: 511 m (Arkauteko Urmaela).

Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi.

***1 Betoñoko Urmaela**. 21 hektareako gehienezko hedapena eta 1,5eko gehienezko sakonera dauka. Hura lehenera ekarri ondoren, 1994.urtean lehenengo aldiz bete egin zen eta urtean bederatzi hilabetez inguru ura izaten du.*

***2. Arkauteko Urmaela.** Urmaelik handiena da. 39,5 hektareako gehienezko hedapena eta 1,2 metroko gehienezko sakonera du.*

***3. Duranzarrako Urmaela.** 4,5 hektareako azalera du. Lehenera ekarri ondoren, 2003. urtean bete zen lehenengo aldiz.*

***4. Larregana Urmaela**. Hura drainatu zen 1857. urtean eraiki zen "Urmaelaren Kanalaren" bidez. Azken hura erabil zen ere Arkauteko urmaela drainatzeko eta bertako ubideak Dulantzi ibaira eraman ziren. 1998. urtean Urmaelaren Kanala ixteko dike bat eraiki zen eta horri esker urmael hauek lehenera ekartzeko lanak hasi ziren.*

*5. **"Ataria". Salburuako Natura Interpretazio Zentroa.** Eraikin honek egurrak, hormigoia eta kristala batzen ditu, oro har, natura eta, zehazki, Salburuako hezegunea zabaltzeko helburuarekin. Bere behatokia nabarmentzen da, ur artifizialeko xafla baten gainean.*

***6. Alegria / Dulantzi ibaia.** Bere ubidea zuzendu egin da.*

7 San Lorenzo ibaia.

8 Elorriaga ibaia.